

## ZORRIEN AURKA, DENOK BATERA!


Hainbat batzar eta oharretan aipatu izan dugu astero-astero zorriak ditugun ala ez begiratu behar dugula (bai umeok bai nagusiok); baina, antza, ez dugu denok egiten, eta azken aldi honetan gai honekin arduratuta gabiltza. Horregatik eskatzen dizuegu **datarren asteburuan** denok behean azaltzen diren neurriak hartzea. **Denok horrela jokatzek gure umeen osasunerako onura ekarriko du.**

### Zer egin zorriak edo bartzak daudenean ?

Buruko zorriak intsektu txiki batzuk dira, hegorik gabeak, bizirauteko pertsonen odola behar dutenak. Ez dute giza gorputzetik kanpo bi egunetik gora irauten. Zorriek ez dute hegaz egiten, saltorik ere ez, baina azkar mugitzen dira ile lehorrean. Pertsona baten burutik bestearenera kontaktuaren bidez pasatzen dira, eta objektu pertsonalak partekatzean (toallak, txanoak, orraziak...). Bartzek, hau da zorrien arrautzek, ur tanta itxura dute, ilearen sustraietan atxikitzen dira, eta ez dira erraz askatzen.





### Zer egin susmoak daudenean...

1. **Ilea aztertu**, batez ere garondoa eta belarri ostea, ea ileari itsatsitako bartzik edo zorri bizirik dagoen ikusteko. Bartzak zorriak baino errazago ikusten dira.
2. **Ilea hezetu**, bustita dagoenean zorriak gutxiago mugitzen dira eta.
3. **Ile hezea askatu** eta xerloetan banatu.
4. Xerlo bakoitza **orraztu** sustraietatik puntaraino **orrazi xehe** bat erabiliz (hagin luzeak eta tarte estudun orrazi berezia, ahal dela metalezkoa, zurruntasunagatik).
5. Orrazia pasatzen den bakoitzean **begiratu argitara**, zorririk edo bartzik dagoen ikusteko. Ganoraz orrazteko 15/30 minutu beharko dira.
6. Prebentzio neurri moduan aipatutakoa aldi-aldi egin.



### Zer egin agerpenak daudenean...

1. Bartz edo zorri biziak ikusiz gero, **zorrien kontrako produktu pedikulizida bat erabili**, betiere prospektuko argibideak jarraituz (lozioak xanpuak baino eraginkorragoak dira).
2. Aplikazio denbora igaro ondoren, **garbitu ilea** ohiko xanpuarekin eta uretan aklaratu.
3. Ile umela **orrazi xehearekin zehatz mehatz orraztu**, zorriak eta bartzak ezabatzeko.
4. Jarraitu orrazi xeheaz orrazten txandakako egunetan **harik eta bartzak desagertu arte**.
5. Komenigarria da 2. aplikazio bat ematea. 7-10 egun igaro ondoren.

-  **Zorriak izatea ez da higiene txarraren seinale.**
-  **Familiako partaide guztien ilea aztertu. Tratamend beharrezko denean baino ez aplikatu.**
-  **Jakinarazi ikastetxekoei eta hurbilekoei.**
-  **Ez erabili inoiz zorrien kontrako produkturik kutsatzea saihesteko.**

